EKIN 2027 PROGRAMA

DEIALDIAREN OINARRIAK

DEIALDIAREN OINARRIAK

1. **Nor gara**
2. **Programaren helburuak**
3. **Nori dago zuzenduta?**
4. **Zer egin behar dut Programan parte hartzeko?**
5. **Proiektuen hasierako hautespena**
6. **Programaren faseak eta edukiak**
7. **Proiektu finalistak hautatzea Demo Day-rako**
8. **Proiektu onenei sariak**
9. **Programarekin hautatutako pertsonen konpromisoak**
10. **Programaren konpromisoak hautatutako pertsonekin**
11. **Konfidentzialtasuna eta jabetza intelektualeko eskubideak**
12. **Lege-baldintzak**
13. **Kontaktua**

1. NOR GARA

BBK mende bat baino gehiago darama Bizkaiko **garapen ekonomikoaren eta gizarte kohesioaren alde lanean**. Gure Obra Sozialak baditu baliabideak talentua eta ekintzailetza sustatzeko, eta urtero, milaka pertsonak hartzen dute parte eta ateratzen diote etekina prestakuntzari eta enpresen sorrerari zuzendutako BBKko programei.

BBKk lider izan nahi du Bizkaian **inpaktu handiko ekintzailetza sozialeko** eta **inbertsioko ekosistema** bat sortzeko, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta 2030 Agendarekin bat eginda.

Nazio Batuen arabera, garapen bidean dauden herrialdeek egun **urteko 4,2 bilioi dolar inguruko finantzazio-arrakalari** egin behar diote aurre Garapen Jasangarriko Helburuak (ODS) lortzeko.

Behar horri aurre egiteko, mundu mailan erantzun bizi bat sortu da, erreminta berritzaileak erabiltzen dituena gure gizarteko arazoei zein ingurumenekoei erantzuteko: gizarte berrikuntza eta ekintzaileak, enpresak eta inpaktuzko inbertsioak, sistema ekonomikoa ekonomia jasangarriago baterantz eraldatze aldera. Orain arte, inbertsioak errentagarritasun-arrisku binomioaren mende egin dira.

Halere, inpaktuzko inbertsioak hirugarren dimentsio bat ere badu: **inpaktu sozial eta ingurumen-inpaktu positibo eta neurgarria** sortzea, inbertsio-erabakiak errentagarritasuna-arriskua-inpaktua trinomioan oinarrituta hartzen hasteko.

Ikuspegi horrek gero eta garrantzi handiagoa hartzen du mundu osoan, eta inpaktuaren inbertsioaren munduko merkatuak dagoeneko **1,57 bilioi dolar baino gehiago ditu kudeatutako aktiboetan**, Global Impact Investing Network-en azken kalkuluen arabera (GIIN).

BBKn modu aktiboan egiten dugu lan errentagarritasuna-arriskua-inpaktua trinomio horrekin inbertitzaile izateko, izan ere, horiek baitira indartu nahi dugun enpresa-eredua islatzen dutenak. Horretarako, estrategia zabal bat diseinatu dugu, Berrikuntza Sozialetik eta hiritarren kontzientziaziotik ekintzailetza sozialeko programak garatzera doana.

Planeta bakar baten parte gara, eta komunitate global gisa, erronka horiei aurre egiteko helburua dugu, NBEren 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen bitartez. BBKtik helburu horiek lortzen lagundu nahi dugu, gure programen, sare globalaren eta inbertsioen bitartez. Zentzu horretan, ekintzaile sozialei ematen zaien laguntza lau fase ongi zedarrituak dituen prozesu gisa ulertzen dugu: **inspiratzea, bultzatzea, bizkortzea eta inbertitzea**, eta horietan eragina maximizatzea eta lehiakortasun jasangarrian oinarritutako negozio-ereduak sortzea lortzen duten programak sartzen ditugu.

- **Inspiratzea**: Gure asmoa lurraldean inpaktu sozial positiboa sortzen duten ideiekin, joerekin eta soluzioekin inspiratzea da. Hiritarrak ahalduntzen ditugu eta inpaktu sozial positiboa duten etorkizunak bistaratzen ditugu.
- **Bultzatzea**: Aldaketa sozial bat sustatuko duten ideiei negozio-eredua emateko baldintzak sortzen laguntzen dugu. Enpresak martxan jartzea, etorkizunean haiek

eskalatu ahal izateko negozio- eta jasangarritasun-ereduarentzat oinarri sendoak sortuz.

- **Azeleratzea**: Garapenerako potentziala duten enpresa eta proiektu sozialak bizkortu egiten ditugu, bai lurraldean, bai nazioartean. Negozio-eredua eskalatzeko, beste eragile garrantzitsuekin konektatzen dugu.
- **Inbertitzea**: Baliabide ekonomikoak lortzen laguntzen dugu, eta inpaktu sozial eta eskalagarritasun handia duten enpresa sendotuei laguntzen diegu.

Ekin inpaktu sozial positiboa duen negozio bat garatzen ari diren ekintzaile sozialentzako inkubazio-programa bat da. Programaren bukaeran, hiru proiektu onenek oinarri hauetako zortzigarren atalean adierazitako diru-sariekin saritu ko dira

BBKk Ekinen inpaktua areagotu nahi du bere 6. edizioan, hazkunde ekonomikorako aukerak sortzen dituzten eta Bizkaian berrikuntza sozialaren garapena sustatzen duten ekintzailetza sozialeko 25 proiekturi laguntzeko programan.

Ekin programan parte hartzeko aukeratuko diren proiektuak inkubazio-programa oso batean hartuko dute parte. Hartan, enpresa soziala egituratu eta baliozkotu ahal izango dute, ingurunean inpaktua sortzeko negozio jasangarri bat sortzeko helburuarekin. Aurrez aurreko networking saioak eta adituen workshopak izango dituzte, enpresaren kultura definitzeko eta hazteko eta inbertitzaileen aurrean prestatzeko. Halaber, hiru proiektu onenen artean badaude, 10.000€-ra arteko sari bat jasotzeko aukera izango dute.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Ekimen honek **hasierako faseetan dauden inpaktu soziala duten proiektuak** aurkezten dituzten startup-ei laguntzen die, eta inpaktua eskalatzea planteatzen du, Bizkaian berrikuntza soziala garatzeko etengabeko aukerak sortuz, ekintzaileei beren **negozio-eredua baliozkotzen eta funtsak erakartzeko prestatzen lagunduz.**

Gure helburuak anbizio handikoak dira:

- Urrats bat gehiago ematea BBKk Bizkaian ekintzailetzarekin duen konpromisoan.
- Bizkaia Europa mailan erreferente bihurtzea ekintzailetzaren laguntza integralean.
- Gizarte-konpromisoa duten garapena eta enplegua sortzen duten enpresak eraikitzen laguntzea.
- Gizarte-ekintzaileei laguntzea, Bizkaiaren eta munduaren erronkei irtenbideak emango dizkieten eta inpaktu iraunkorra sortuko duten proiektu jasangarriak sor ditzaten.
- Ekintzaileei hasierako faseetan doako erremintak ematea
- BBKren inguruan ekintzaile sozialen komunitate handia eta inklusiboa sortzea

- Bizkaiko ekintzaile sozialei ekintzaile globalen komunitate batera sarbidea ematea.
- Ekintzaileen ekosistema BBKren langileei eta kolaboratzaileei gerturatzea, programako mentore gisa parte hartuz.
- Ekintzaile sozial batzuek Agenda 2030 lortzeko egiten duten lana bistaratzen laguntzea.

3. NORI DAGO ZUZENDUTA?

Ekimen eta konpromiso soziala duten ekintzaileak bilatzen ditugu, haien enpresa-proiektuak martxan jarri nahi dutenak eta haien proiektuak abiarazteko eta egia bihurtzeko laguntza jaso nahi dutenak. Horiek guztiek hurrengo betekizunak bete beharko dituzte:

- **Bideragarritasuna eta hazteko potentziala.** Enpresa-proiektuak jardueraren edozein sektoretan, bideragarriak badira eta arrakasta izateko potentziala badute.
- **Garapenaren hasierako fasea.** Hazi aurreko fasean dauden proiektuak (ideia, kontzeptua, proiektua, ETEa edo startup-a), oraindik martxan ez daudenak edo arlo merkantilean eratuta daudenak, baina jarduerarik gabe.
- **Errotzea.** Bizkaian kokatutako proiektuak, lurraldean inpaktua sortzeko gaitasuna eta tokiko proiekzioa zein eta/edo nazioartekoa dutenak.
- **Gizarte konpromisoa.** Osagai sozial handiko proiektuak, BBKk Bizkaiko ongizatearekin eta garapen jasangarriarekin lerrokatuta daudenak.
- **Inpaktu positiboa lurraldean eta gizartean.** Bizkaian enplegua sortzeko, berritzeko eta oparotasuna sortzeko helburu zehatzak dituzten ekimenak, edo gizarte- eta ingurumen-erronkei erantzuten laguntzen dutenak, hala nola biztanleriaren zahartzea, gazteei laguntzea, ingurumena zaintzea, jasangarritasuna, hezkuntza edo informazioa eskuratzea.

Sustatzaileen taldea osatzen duten pertsona guztiak adinez nagusiak izan behar dute.

4. ZER EGIN BEHAR DUT PROGRAMAN PARTE HARTZEKO?

Ekin programan parte hartzean interesa duten pertsonek haien hautagaitza BBKren web orriaren bitartez aurkeztu beharko dute; handik iritsiko dira izena emateko formulariora. Eskaeran, eskatzaileari eta haren ibilbide profesional eta prestakuntzazkoari buruzko informazioa jasoko da, baita enpresa-proiektuari buruzkoa ere: xedea, mugarri nagusiak, balio-proposamena eta elementu bereizleak, negozio-eredua, gizarte-eragina eta talde sustatzailearen osaera.

Ezinbestekoa izango da sustatzaileek, programa osoan zehar, Interneterako sarbide erregular eta egonkorra izatea nabigatzaile hauetako bat duen ordenagailu batean: Google Chrome, Firefox edo Safari.

Eskakizunak aurkezteko deialdia 2026ko azaroaren 5eko 9:00etatik abenduaren 15eko 23:59ak arte egongo da irekita.

Ez da onartuko epe horretatik kanpoko eskakizunik.

5. PROIEKTUEN HASIERAKO HAUTAKETA

Proiektuen hasierako ebaluazioa eta hautaketa Ekinen Hautaketa Batzordeak egingo du, zeina BBKren langileek eta Bridge for Billions-ekoek eratuko duten.

Eskakizunak aurkezteko epea bukatutakoan, Batzordeak jasotako hautagaitzak ebaluatuko ditu eta programaren hurrengo fasera igaroko duten 25 proiektuak hautatuko ditu. Erabakia posta elektronikoz jakinaraziko zaie eskatzaile guztiei, haien proiektuak hautatuak izan ala ez, **2026ko abenduaren 21 baino lehen.**

Hautatzeko irizpideak:

1) **Izan dezakeen eragin soziala**
   Lehentasuna emango zaie Bizkaian gizarte- eta / edo ingurumen-erronkei modu positiboan erantzuten dieten proiektuei
2) **Negozio eredua**

   Proiektuak bideragarriak izan behar dira ekonomikoki, eta eskainitako ikuspegi ekonomiko-finantzarioetan logika eta egiazkotasuna izan behar dute.

3) **Berrikuntza**
   Originaltasuna eta berrikuntza maila izango dira kontuan, eta baita proiektuaren ideia zein mailatan zehaztuta dagoen ere.
4) **Eskalabilitatea / errepikakortasuna**
   Proiektuek hazteko potentziala eta merkatuko aukera izan behar dute, eta baita epe ertainean lana sortzeko ahalmena ere.
5) **Taldea**
   Partaideek ondo kohesionatutako talde bat osatu beharko dute, eta, alde batetik, gauzatzeko gaitasuna izan beharko dute, eta, bestetik, komunikatzeko gaitasuna.

6. PROGRAMAREN FASEAK ETA EDUKIAK

Ekin programak urteko deialdi bat izango du, 25 proiekturen partaidetzarekin. Sei hilabeteko iraupena izango du, deialdia plazaratzen denetik inkubazio prozesura eta itxiera ekitaldietara arte.

-**Deialdiaren abiaraztea eta hautaketa (2 hilab.)**

-**Inkubazio-programa (4 hilab.)**

-Inkubazio-programan sartzea

-Mentoretzak (online)

-Prestakuntza saioak eta tailerrak adituekin (online)

-Komunitatearen jarduerak (presentzialak eta online)

-Demo Day eta Sariak (presentziala)

Inkubazio programaren edukiak:

Programak zortzi modulu ditu, oinarri berritzaileko ekintzailetza-metodologiak jarraitzen dituztenak, eta diseinatuta daude ekintzaileak urratsez urrats eta arin beren ideiak egituratzera eta beren negoziorako ekintza-plan bat argi zehaztera eramateko. Moduluek definizio gakoak, adibideak, tutorialak eta baliabide gehigarriak dituzte, ideiak desafiatzen eta aukerak ebaluatzen laguntzeko.

Gainera, ordu 1 eta 15 minutuko zortzi saio ematen ditugu ekintzaileekin profesional adituen eskutik ematen ditugun zortzi inkubazio-moduluetako bakoitzean.

Hauek dira zortzi modulu horiek:

1. **Balio-proposamena.** Ekintzaileek konpontzen ari diren arazoa, merkatuko aukerak, bezeroen beharrak eta produktuaren onurak ulertzen dituzte.
2. **Lehiakideen mapa.** Ekintzaileek haien eskaintzaren sendotasunak eta ahuleziak identifikatzen dituzte, lehiakideetatik nola bereizten diren eta euren lehiarako abantaila aurkitzen dute:
3. **Bazkide estrategikoen mapa.** Ekintzaileek beren negozioa martxan jartzeko behar dituzten bazkideak identifikatzen dituzte eta beren bazkide-sareen eta banaketa-kanalen mapa bat sortzen dute.
4. **Negozio-eredua eta marketina.** Ekintzaileek beren negozioa hazteko funtsezko jardueren ideia argia dute, eta bezeroak nola erakarri eta nola itzularazi ikasten dute.
5. **Prezioa eta proiektuaren bideragarritasuna.** Ekintzaileek ulertzen dute bezeroak erakartzeko kostua, eta beren negozioa ikuspegi finantzariotik bideragarria izateko preziorik onena zein den jakiten dute.
6. **Finantza-aurreikuspenak.** Ekintzaileek beren kostuak eta diru-sarrerak identifikatzen ikasten dute, hainbat finantza-egoera gauzatzen dituzte eta oreka-puntura noiz iritsiko diren erabakitzen dute
7. **Inpaktu-plana.** Ekintzaileek ikusten dute nola txertatu haien merkatuaren testuinguru orokorrean, nola zehaztu haien misioa eta ikuspegia, lortu nahi duten inpaktu soziala zehazten dute eta ahalik eta zehatzen neurtzen ikasten dute

8. **Hazkunde plana.** Ekintzaileek hazkunde plan bideragarri bat eraikitzen dute, hurrengo 3 urteetarako helburuak ezartzen dituzte, arriskuak aurreratzen dituzte eta arintze estrategiak definitzen dituzte, beti prest egoteko.

Inkubazioaren lau hilabeteetan zehar, plataformako edukiez gain, hurrengo ekitaldiak eta jarduerak egingo dira:

Produktua merkaturatzeko ekitaldia

Ekintzaileek ongi etorria emango diote programari, zer ikasi eta lortuko duten gogoraraziko diete, programaren faseen ikuspegi orokorra emango diete eta programaren xehetasunetan barrena ibilbidea egingo dute, pertsona guztiak lerrokatuta daudela eta eskura dutena eta haiengandik espero dena ezagutzen dutela ziurtatzeko.

Networking saioak

Saio horietan, ekintzaileak eta/edo mentoreak gonbidatuko dira programan zehar 3-4 saio presentzialetan (eta/edo hibridoetan) parte hartzera, parte-hartzaileak fisikoki aurkitu daitezen, sinergia posibleak esploratu ditzaten eta ikaskuntzak parteka ditzaten.

Checkpoint saioak

Ordu 1 eta 15 minutuko zortzi saio ematen ditugu ekintzaileekin gure adituen eskutik ematen ditugun inkubazio-moduluetako bakoitzean. Horrek aparteko laguntza-geruza bat ematen die ekintzaileei, eta, bertan, modulu bakoitzari buruzko ezagutza sakona eta lankideekin harremanetan jartzeko aukera jasoko dute.

Adituen tailerrak

Programa gai eta arlo ugaritan adituak diren hizlariekin osatuko dugu, ekintzaileen esperientziei balio gehigarria emateko.

Demo Day eta Sariak

Azken ekitaldi horretan, hautatutako 12 ekintzaileri, gehienez, beren proiektuak epaimahai baten aurrean aurkezteko gonbita egingo zaie. Hiru proiektu irabazleak hautatuko dira eta sariak banatuko dira.

7. PROIEKTU FINALISTAK HAUTATZEA DEMO DAYRAKO

Ekineko Hautaketa Batzordeak parte hartzen duten proiektuen segimendua eta ebaluazioa egingo du, programaren aurrerapen-, konpromiso- eta aprobetxamendu-maila kontuan

hartuta. Ebaluazio horren arabera, gehienez 12 proiektu finalista hautatuko ditu, eta beren proiektuak epaimahai baten aurrean aurkeztuko dituzte Demo Day programaren amaierako ekitaldian, eta hiru sarietako bat eskuratu ahal izango dute bertan.

8. PROIEKTU ONENEI SARIAK

Azken egunean, aurrez aurre, Demo Day amaiera-ekitaldia egingo da. Proiektu finalistek beren proiektuak aurkeztuko dizkiote Ekineko Hautaketa Batzordeari, eta ekosistema ekintzaileko eragileen parte-hartzea edo aholkularitza jaso ahal izango du.

Ekitaldian, aurkezpenak ebaluatuko dira eta hiru proiektu irabazleak zehaztuko dira, irizpide hauen arabera:

- **Inpaktu sozial potentziala:** proiektuak gizarte- edo ingurumen-erronkei aurre egiten laguntzeko duen gaitasuna, Bizkaian bereziki.
- **Negozio-eredua:** bideragarritasun ekonomikoa eta enpresa proposamenaren sendotasuna.
- **Berrikuntza:** ekimenaren originaltasuna eta bereizte maila.
- **Eskalagarritasuna eta errepikagarritasuna:** hazteko, hedatzeko eta enplegua sortzeko potentziala.
- **Sustapen taldea:** taldearen gaitasunak, konpromisoa eta gauzatzeko ahalmena.
- **Proiektuaren aurkezpena:** aurkezpenaren argitasuna, komunikazio-gaitasuna eta kalitatea.
- **Profil ekintzailea:** sustatzaileen ekimena, motibazioa eta gaitasuna proiektua bultzatzeko.

Hiru sari emango dira balorazio onena duten hiru proiektuentzat:

- 1. saria: 10.000 €

- 2. saria: 5.000 €

- 3. saria: 2.500 €

Sariak pertsona juridikoei emango zaizkie. Beraz, proiektu irabazlea ez badu eratutako erakunde juridiko batek garatu, sustatzaileek eratu egin beharko dute saria jaso ahal izateko.

Sariaren zenbateko osoa saritutako proiektua garatzeko erabiliko da, eta Kutxabankeko kontu-zenbaki batean ordainduko da. Kutxabankeko kontu-zenbakiaren titularra saritutako proiektua duen erakundea izango da.

BBKk eta erakunde onuradunak agiri bat sinatu beharko dute saria jaso ahal izateko. Agiri horretan, funtsak emateko, ordaintzeko eta erabiltzeko baldintza bereziak ezarriko dira.

Hiru sari nagusiez gain, **accesitak edo aipamen bereziak emango zaizkie** beste proiektu parte-hartzaile batzuei, baldin eta bikaintasunagatik nabarmentzen badira hainbat arlotan: berrikuntzan, inpaktu sozialean, jasangarritasunean edo programaren helburuetarako bereziki garrantzitsuak diren beste alderdi batzuetan.

Aipamen berezi horien helburua izango da parte hartzen duten pertsona ekintzaileen ahalegina, sormena eta konpromisoa ikusaraztea eta horiei balioa ematea.

Parte-hartzaileek Hautaketa Batzordearen erabakiak onartuko dituzte, irabazleak hautatzeari dagokionez.

Parte-hartzaile guztiei entregatuko zaie ziurtagiria programaren bukaeran.

9. HAUTATUTAKO PERTSONEK PROGRAMAREKIN DITUZTEN KONPROMISOAK

Ekin programan parte hartzeak eta lankidetza eta mentoring eskubide guztiak lortzeak hautatutako Pertsona hurrengo konpromisoak hartzea dakar: Hauek dira espero diren konpromisoak:

1. **Proiektuari dedikazioa:** Astean sei eta zortzi ordu bitartean eskaini behar zaizkio proiektua garatzeari. Gainera, mentoretza-hitzarmena sinatu beharra dago hasierako konpromiso gisa programari hasiera emateko.
2. **Bertaratzeko konpromisoa:** Programaren barruan eskainitako saioen eta tailer birtualen % 100era joatea (justifikatuta edo ezinbestez falta behar bada salbu), eta baita eskainitako jarraipen-jardueretara ere. Prozesu osoan zehar, gutxienez, pertsona bat joan beharko da.
3. **Adostutako ekintza-planaren inplementazioa, eta lehentasuna ematea identifikatutako gako-metrikak lortzeari**.
4. **Eboluzioaren eta lortutako mugarrien inguruko informazioa** (enplegua sortzea, diru-sarrerak, inbertsioak, jasotako sariak…) Ekin taldeari azken bi urteak arte, programa bukatu zenetik sei hilabeteko aldizkakotasunarekin, haren programarekin sortutako inpaktuaren benetako neurria zehazteko.

10. PROGRAMAK HAUTATUTAKO PERTSONEKIKO DITUZTEN KONPROMISOAK

Honako konpromisoa du Ekin programak:

1. **Inkubazio-koordinatzaile bat izendatzea** hautatutako proiektuetako bakoitzarentzat.

2. Zortzi saio ematea, ordu eta laurdenekoa bakoitza, gure adituetako batek emandako zortzi inkubazio-moduluetako bakoitzean sakontzeko. Horrela, laguntza estra gisa, modulu bakoitzean jakintza sakona jasoko dute eta aukera aparta izango dute taldekideekin hartu-emanetarako.

3. Ekintzaileak Ekin sareko mentoreekin konektatzea.

4. Proiektuetako kideak gonbidatzea ekintzailetza-ekosistemaren ekitaldietara eta Ekin programaren barruan antolatutako beste ekitaldi batzuetara.

5. Parte hartuko duten proiektuei hedapena ematea.

6. Betirako mundu osoko milaka ekintzaileen eta mentoreen komunitate baterako sarbidea ematea. Komunitate globalean, ekintzaileek asteroko sarbidea dute albiste garrantzitsuetara, inbertsio-aukeretara, coaching zirkuluetara, adituetara, mentoreetara, etab.

7. Programaren amaieran ekintzaileei laburpen exekutibo bat sortzen laguntzea, beren proiektuak inbertitzaileei eta interesa duten beste eragile batzuei aurkezteko erabili ahal izango dutena.

8. Ekintzaileek landutako modulu bakoitzetik informazio guztia deskargatu ahal izango dute.

9. Programa osteko *alumni* jarraipena bere programarekin sortutako inpaktuaren benetako neurria neurtzeko.

Proiekturen bat ez bada espero ziren helburuak lortzen ari, dedikazio falta izan duelako edo/eta hartutako konpromisoak bete ez dituelako, Hautaketa Batzordeak inkubazio-prozesutik proiektua kanporatzea erabaki ahal izango du.

11. KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

Ekin Programara aurkeztuko diren proiektuen edukia, eta hornituko den orotariko dokumentazioa eta informazioa konfidentziala, isilpekoa eta murriztua izango da, eta hala tratatuko ditu Ekin, eta baita Hautatze Batzordearen kideek ere. Parte hartzen duten proiektuek, arau orokor gisa, onartzen dute Hautatze Batzordeak proiektuaren oinarrizko datuak erabiltzea oinarri hauetako ebaluazio eta hautaketa-prozesuetan.

Parte hartzen duten proiektuek bermatuko dute beren borondatez programara ekarritako lanek eta edukiek (laburpen edo aurkezpen guztiak barne) ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen edo, hala badagokio, programa honetan parte hartzeko behar diren baimen guztiak dituztela, ez direla iraingarriak, ez iraingarriak, ez eta aplikatuko den araudiak biltzen dituen indarkeria, arrazakeria eta askatasun publikoak urratzen ere. Ezta haurren eta gazteen babesari dagozkionak, ezta pertsona fisikoen edo familiaren intimitatean sartzearenak ere, ez eta hirugarrenen ohorerako eskubidea edo komunikazioen sekretua urratzearena ere,

edo ez dira indarrean dagoen araudiaren kontrakoak. Aldi berean, aurkeztutako proiektuek hizkuntzaren erabilera ez sexista eta irudien tratamendu egokia bermatuko dute.

Gainera, parte hartuko proiektu bakoitzak baimena emango dio BBKri bere izena eta lotutako publizitaterako materialean erabiltzeko, Internet barne, horrengatik dirurik jaso gabe.

Programaren esparruan egindako berrikuntza, patente edo garapen teknologikoen jabetza intelektuala talde sustatzaileak eratutako sozietatearena izango da.

12. LEGE-BALDINTZAK

Lege-baldintzen onarpena. Oinarri hauen xedea Ekin Programan parte hartzeko arauak ezartzea da. Programaren deialdian parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek onartzea, salbuespenik eta baldintzarik gabe, baita BBKk eta/edo Programa honetako Hautatze Batzordeak interpretazioari buruz eman dezakeen edozein ebazpen ere.

Datu pertsonalen babesa.

Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak (IFK: G-48412720; helbidea: Kale Nagusia 19-21, 48001 Bilbo (Bizkaia) eta Bridge for Billions-ek (IFK: B-87982351 eta helbide soziala: Huerta kalea 11, 1 solairua. 2. atea, 28014, Madril) tratatuko dituzte Ekin ekimenean eta hura izapidetzean emandako datu pertsonalak eta ekimenarekin batera aurkeztutako dokumentazioan jasotakoak, tratamenduaren erantzukide gisa, hautagaitzak aztertu, ebaluatu eta izapidetzeko, bai eta, hala badagokio, behar diren kudeaketak egiteko ere, programan benetan sartzeko eta haren jarraipena eta balorazioa egiteko. Tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa tratamenduaren beharra da, oinarri hauetan zehaztutako kontratu-neurriak aplikatu ahal izateko.

Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehiago eskuratzeko edo sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko eskubidea erabiltzeko, zuzendaritzarekin harremanetan jar zaitezke proteccciondedatos@bbk.eus helbide elektronikoaren bitartez. Datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, pribatutasun politika espezifikoak kontsultatu ahal izango dituzu eskaeren aurkezpen inprimakian.

Erantzukizunetik salbuestea. Talde sustatzailea da enpresa proiektuaren kudeatzearen eta administrazioaren erantzule bakarra, eta, bereziki, bere proiektuekin hirugarrenen eskubideei eragin diezazkiekeen arau-hausteengatik eta kalteengatik. Horrez gain, eragindako hirugarrenei eta BBKri kalte-ordaina emango die, betebeharrak ez betetzeagatik eta/edo legezko oinarri hauetan ezarritako eta onartutako aitorpenak eta betebeharrak egiazkoak edo zehatzak ez izateagatik eragindako kalte-galerengatik. BBK ez da parte-hartzeari edo programa garatzeari eragin ahal dion hirugarrenen erruzko edozein atzerapen edo gertakariren erantzulea. BBK ez da aldi baterako edo modu jarraituan programan parte hartzeko sistemaren funtzionamendua eteten delako eragindako kalte edo galeren erantzulea. BBKk ez du bere gain hartzen erregistroei, datu-bidalketari edo bestelakoei dagokienez

postan edo telekomunikazio sareetan izaten diren atzerapenengatiko erantzukizunik. BBKk eskubidea du programa bertan behera uzteko, aldatzeko edo eteteko. BBK ez da izango talde sustatzaileen datuak akastunak izatearen, eguneratuta ez egotearen edo BBKren esku ez dauden arrazoiengatik kontaktatzerik ahal ez izatearen erantzule.

Legeria eta jurisdikzioa BBKren erabakia merkataritzakoa da, eta hori epaitegi eta auzitegi zibilen eskumen jurisdikzionala da. Enpresa-proiektuetako ordezkariek, legokiekeen edozein eskumeni formalki uko eginez, Bilboko Justizia Auzitegien mende jartzen dira, zuzenean edo zeharka, programa honen interpretazioari edo gauzatzeari buruz sor daitezkeen auziak, desadostasunak, auziak edo erreklamazioak ebazteko.

Kode etikoa. Deialdi honetara eskabidea aurkezteak BBKren Kode Etikoa ezagutu, onartu eta betetzeko konpromisoa dakar. Parte hartzen duten erakunde eta pertsonek konpromisoa hartzen dute kode horretan jasotako printzipio, balio eta jokabide-arauen arabera jarduteko proiektua gauzatzen den bitartean. Printzipio horiek betetzen ez badira, deialditik kanpo gera daiteke, edo, hala badagokio, emandako laguntza baliogabetu.

13. KONTAKTUA

Edozein zalantza argitzeko edo programaren inguruko informazio gehiago lortzeko, Ekin programaren web orrian sartu (www.bbk.eus/bbkekin) edo bidali e-posta bbkekin@bbk.eus helbidera.

Programaren inguruan egon daitezkeen kexak kontuan hartu ahal izateko, idatziz aurkeztu beharko zaizkio BBKri 'JARRI HARREMANETAN' formularioaren bitartez, https://www.bbk.eus webgunean.